

EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIOAK ETA ERABAKIAK

-zio, -zione, -zino

Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean *-tione* atzizkiak axola berezia du, euskal hitzei ere gehi baitakieke, *amorratio*, *begitazino* eta kidekoak emanez.

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Literatura tradizioan nagusiak hauek dira: *-zino* edo *-ziño* bizkaieraz (*-zino* zenbait idazle lapurtar klasikotan ere agertzen da, eta bizkaierazko zenbait testu zaharretan, baita ere *-zione*); *-zio* gipuzkeraz, goinafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta *-zione* Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere *-zio*, Echeniquek bederen) eta Erronkarin. Azken hogeita bost urteetan euskara batuaren eraginez horietarako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: *-zio* Hegoaldean eta *-zione* Iparraldean. Beraz, badirudi euskara baturako hautaketa bi aldaera horien artean egitea dela bidezkoena, eta soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldean erabilia dena hobestekoa dela.

Hortaz, Euskaltzaindiak *-zio* aldaera (hots, *amorratio*, *begitazio*, *debozio*, *instalazio*, *integrazio*, *zibilizazio*, *administrazio*, *segizio*, *barkazio*, bezalako formak) hobesten du euskara baturako.

Euskaltzaindiak 1993ko azaroaren 27an onartua